

Dantzari Festa eta Txalaparta Festa maiatzeko kultur ekitaldi nagusiak

■ Dantzari Festa datorren larunbatetik maiatzaren 10era da eta Txalaparta Festa maiatzaren 22tik 25era
 ■ Biteriko erakusketa, kontzertuak, ipuiai eta Gazte Txokoko ekintzei osatzen dute eskaintza.

MAIATZEAN kultur eskain-tza zabala dago Hernanin, datorren asteburutik hasita. Dantzari Festakoak dira lehen ekitaldiak datorren larunbatetik hurrengora arte. Datorren larunbatean Ipar Euskal Herriko dantza ikasteko au-kera izango da, Plaza Berri. Igandean, berriz, Euskal Herri guztiko 8 dantza talde izango dira Hernanin eta egun guztiko festa egingo dute.

Dantzari Festaren barruan, hurrengo aste osoan Euskal-Jantzi erakusketa, eta hitzaldiak izango dira, astele-henetik ostegunera, eta osti-ralean, hilak 9, Ipar Euskal Herriko dantza ikastaroa izango da. Maiatzaren 10ean bukatuko da aurtengo dantzari Festa, herriko dantza taldeen emanaldiekin.

Arte lanak Biterin

Errapia taldeak antolatuta arte lanak egongo dira Biterin, maiatzaren 13tik 22ra. Pintura, oihal gaineko impresio digitala, kristala eta burnia, eskultura, zeramika, argazkiak eta abar egongo dira, 20 artista baino gehiagoren lanak guztira. Biteriko erakusketa Goizuetako Udaletxeen apirilaren 14ra arte egon den erakusketaren parte bat izango da. Arte lanak egin di-



Iazko dantzari festan bikotea dantzan.

tuztenak Zikuñagako eskola zaharrean dabiltzan Errapia taldeko artistak eta Euskal Herriko beste hainbat tokietako artistak dira. Errapia taldeak esan zuen Zikuñagako lokalean sartu berritan, herrian hainbat erakusketa antolatzekoak zituztela eta bigarrena badute dagoeneko.


Jexux Artzeren omenez Txalaparta Festa maiatzaren 22tik 24ra da eta Jexux Artze zena omenduko du aurten. Maiatzaren 22an, txalapartari buruzko hitzaldia emango du Joxanton Artzek, *Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora eta behera izenbururekin*, eta 23an Aztarnak

taldeak *Denbora Txalaparta* kontzertu berezia emango du arratsaldean eta *Txalaparta Party Aparta* izango da gauerdian, Goiz Argi tabernan. Egun nagusia larunbatean izango da: arratsaldean txalaparta saio inprobisatuak eta sagardoa egongo dira Tilosetan. Gauean herri afaria antolatu dute eta afal ondoan izango da txalaparta jaialdi nagusia, Euskal Herriko 7 txalaparta talderekin.

Kontzertu, erakusketa eta ipui kontalarria

Hilaren 15ean dute aurkez-tekoa San Joan jaien Iragarpen kontzertua. Hilaren 21-ean, berriz, kontzertua dago Biterin, Tecnoklock taldearen esku. Maiatzaren 26tik ekainaren 5era ingurugiroari buruz ikasleek egindako lanak egongo dira Biterin eta hilaren 28an Lur Korta ipu kontzertariak 3tik 7 urte bitarteko umeak gozatuko ditu.

Kultur ekitaldien barruan Gazte Txokoak maiatzeko preparatu duena aurkeztu dute. Egitarau zabala dago gazteetat: hilaren 10ean, Krampak pelikula; 15ean, ligazko tailerra; 16an, Talasoterapiara irteera; 23an, Eskalada; eta 31ean, hondartzara irteera egun guztirako. □



Gotzon Aranburu.

**Gotzon Aranburu
gose eta egarri greban,
espetxeen bizi duten
egoera salatzeko**

GOTZON Aranburu urtetan Hernanin bizi izan den azpeitiarra gose eta egarri greban dago Valdemoroko espetxeen, beste 18 euskal preso politikorekin batean, Askatasuna erakundeak prentsa oharr batean azaldu duenez. Gose eta egarri greba espetxeen bizi duten egoera latza salatzeko hasi dute euskal presoek, espetxeen jasaten dituzten jipoiak, sakabanaketa edo inkomunikazio egoera, besteak beste. Gose eta egarri grebarek ondorioz zenbait preso nahiko ahul daude Askatasunak azaldu duenez. □

MAIATZAREN LEHENA

**LABek dei egin du
Bilboko manifestazioa
joateko**

LAB sindikatuak dei egin du, langileen eguna dela eta bihar Bilbon egingo den manifestazioa joateko. Manifestazioa eguerdiko 12:00etan aterako da Arriagatik eta LABek Hernanin 10:30etan jarri du zita, Atseginegin. Bilbora kotxean joateko deia egin du LABek, greban dauden autobus gidari bizkaitarrei elkartasuna adierazteko. □

Udalbiltzaren kontrako operazioa salatzeko kontzentrazio isila gaur Udaletxe aurrean

UDALBILTZAREN kontrako operazioa salatzeko kontzentrazioak deitu dituzte Udaletxe aurreetan, *Bai Euskal Herriari, Bai Udalbiltzari* lema-

rekin. Udalbiltzaren kontrako operazioa atzo goizaldean hasi zen Baltasar Garzon epai-leak aginduta. Polizia Nazionalak Loren Arkotxa buru

duen Udalbiltzako zortzi kide atxilotu zituen eta bulgoetan mihiaketa ere egin zituzten.

Hernaniko Udala ere Udalbiltzako kide da.

Kontzentrazioak Udaletxe aurre guztieta egingo dira, gaur 20:00etan. Udalbiltzak dei egin die herritarrei parte hartzen. □



yone
boutique
Kale Nagusia 63
*Hemen erosiz,
Tenerifera joan
zintezke*
50 euroko
erosketagatik
zozketarako
boleto bat
Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko
loteriarekin

Zure moda Hernanin bertan

**IKASTAROA
LANGABETUENTZAT**
INGLES: Publikoari atentzioa
-INEMek subentzionatua
209 ordu
Ordutegia: 9:00 -13:30
astelehenetik ostiraletarra
Hasiera: maiatzak 9
Bukaera: uztailak 15
Oindi kalea 1
HERNANI
943 333711
943 334227
urralde


mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

brintza
BRINTZA, S.L.
Juan de Urbieta 15
Tel. 943 33 12 67
Fax.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI
LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUA, INBERTSIOAK

Himalayako joan etorriei buruzko irudi eta gogoetak azaldu zituen Alberto Iñurrategik

■ Felix anaiai buruzko gogorapenak dira emanaldiaren ardatza ■ Biteriko Areto Nagusia bete-bete egin zen joan den astelehenean.

DIAPOSITIBA emanaldia hasi aurretik argi utzi zuen Alberto Iñurrategik mendiko diapositiba emanaldi normal bat ez zela *Hire Himalaya*. Nepaleko eta Pakistango herriko irudiak tartekatu zituen mendi elurtuekin, eta ofean bere gogoetak azaldu zituen. Himalaya lehen aldi joan zirenetik 14 zortzimilakoak igo zituen arteko ibilbidea azaltzen du: beren poz eta kontradicioak, eta bidean anaia mendian galdu izanak utzi dion hutsunea.

Txuri beltzko diapositiba eta film pusketak eta Koldo Izagirre eta Kepa Gonzalezen hitzek osatzen dute emanaldi hunkigarrria, eta mendiaren eta orokorean bizitzaren alderdi latzenetako bat azaltzen du; alegia, inguruko pertsona bat galtzearen gogorra.

Himalaya uztea
Albertok esan zuen Felix



Alberto Iñurrategi emaldiari buruko argibideak ematen.

Anaia hil zenean Himalaya berri ez bueltatzea pentsatu zuela. Hori omen da mendizaleek lagun bat galtzen dute nean izaten duten lehen erreakzioa. Denborak, ordea, berriz ere mendarako grina piztu dio Albertori eta anaarekin zituen projektu eta asmoak burutzeko gogoa. □

Nafarroa Oinezen aldeko Mus Txapelketa

■ Elur-Txori elkartean izango da maiatzaren 5etik 15era ■ Inskripzioa 22 euro dira bikoteko eta diru hori Iruberriko ikastolarentzat izango da.

NAFARROA Oinezerako dirua biltzko Mus Txapelketa jokatuko da Elur-Txori elkartean, datozen bi asteetan. Asmoa da 32 bikoterekin egitea txapelketa maiatzaren 5, 6, 7 eta 8an eta 12, 13, 14, eta 15ean. Bikote bakoitzak 22 euro jarriko ditu eta diru hori Iruberriko ikastolari emango

zaio. Lehenengo bikoteentzat sariak egongo dira.

Izen emateko Elur-Txori elkartetik pasa edo bertara deitu: 943 551445. Imaz edo Txikiren galdera egin.

Ur-Mia eta Peña bukaera
Ereñotzko Ur-Mia elkartean finalaurrekoetan dira. Portugal-

Xauxar/Ansa-Gorrotxategi eta Lasarte-Ttantua/Leonet-Leonet dira partidak. Finala eta 3-4 postuak larunbatean jokatuko dira urteko afariaren aurrekik.

Peña Otañon gaur jokatuko dira final eta 3-4 postua. Finala, Balantxa I-II/Sagarna-Luis; eta 3-4 postua, Arrutti-Sagarna/Enrike-Linter. □

Urteurreneko bazkaria bihar Peña Otañon eta afaria larunbatean Ur-Mian

URTEKO bazkaria dute bihar Peña Otañon. Izen ematea Peña Otañon bertan egin behar da. Bazkal ondoan Mus txax-

pelketako sariak banatuko dira.

Ereñotzko Ur mia elkartean datorren larunbatean egingo dute urteko afaria. □

Izen ematea Ur-Mia elkartean bertan egin behar da. Afal ondoan emango dituzte Mus Txapelketako sariak. □

**ZIHARDUTENEAN DIHARDUGU
JEXUX ARTZE GOGOAN**

EZ DOK AMAIRU erakusketa
apirilak 22 - maiatzak 4, Udarregi Ikastolan

DEMA PLAZAN, gaueko 10:30etan
Maiatzak 1: "Oihana auhenka" J. A. Artze...
Maiatzak 2: Oreka TX
Maiatzak 3: MIKEL LABOA, I. Salvador...

Sarrerak salgai: LETE Liburudenda



Arriatsu eskola zaharra.

Arriatsu eskolako estruktura berrituko dute, ingurugiro eskola egiteko lehen fasean

ARRIATSU eskola zaharrean ingurugiro etxe bat egiteko asmoa dago. Lehengo astean obraren lehen fasea egitea onartu zuen Gobernu Batzordeak, alegia, eskeletoa utzi eta barruko estruktura eta banaketa egitea.

Arriatsuri irtenbidea emateko bideragarritasun plana egina dago eta ingurugiro etxea egitea erabaki zen orduan. Energia berriztagarrien gama zabala egongo da Arriatsun, behin ingurugiro etxea martxan jartzean. □



Udal ordezkariak eta umeak atzo lorategietako bonoen zozketan.

Zozketak atzo Hernaniko lorategiak zaintzeko kanpainaren barruan

Hernaniko lorategiak zaintzen ibili diren ikasleek 20 kamiseta eta Hernaniko lorategietan llorean erosteko 3 bono zozketatu zituzten. Kamisetak 4 ikastetxeetako 20 ikasleri tokatu zaizkie eta lorategietarako bonoak Maider Ormazabal, Rosa Mª Martinez eta Garazi Redondori. □

HITZ BITAN

✓ GALDUTAKOAK

Argazki kamara. Argazki batzuekin poltsa bat galdu zen, joan zen ostegunean. Gudarien Enparantzatik Sta Barbara auzora bitartean. Aurkitzen dituenak, Gudarien plazako Etxarri Argazkidendantzutzen ditzake.

Eguzkitako betaurreko graduatuak Eguzkitako betaurrekoak galdu dira, graduatuak. Kristal borobilak eta monitura ure kolorekoa. Aurkitzen dituenak 657 775120 telefonora deitu. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

■ Taxiak:	943 550093
■ Udalzaingoa:	943 333288
■ DYK:	943 464622
■ Autobusak:	943 556662
■ Anbulatorioa:	943 006666
■ Jokalari anonimoak:	943 331103

+ FARMAZIAK

■ Egunez:	Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892
■ Gauez:	Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892

IRAGARKI MERKEAK

18-28 urte bitarteko mutil euskalduna behar dugu Hernaniko taberna batean egi- teko. Interesatuek deitu: 943 55 26 46 - 658 750 896

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

Maiatzaren 4tik 6ra bitartean emakume euskaldun bat behar degu, adineko emakume batekin bizitzeko. Deitu: 943 33 29 11